



# Amaitu dira oporrak; ikastera!

**HASIERA** ▶ Udako oporrak amaitu ondoren, eskualdeko eskola gehienetan atzo hasi ziren ikasleak lanean

**LANA ETA JOLASA** ▶ Aurpegi alaiak ikusten ziren haurren artean; ikasketarekin batera, jolaserako ere aprobetxatu zuten eguna ▶ 2-3



**Tolosa.** Laskorain ikastolako DBHko ikasle batzuk ikastetxetik irtetzen, ikasturteko lehen eguna pasatu ondoren. Lehen egunetan behintzat arratsaldez jai izango dute. IRATXE ETXEBESTE



**Altzo.** Jolaserako denbora ere izan zuten ikasturteko lehen egunean Altzoko eskolako hurrek. MADDI SOROA



**Zizurkil.** Otaño eskolako ikasleak gelan, lehen egunean. Ez zuten pena handirik oporrak amaitu zaizkielako. MADDI SOROA

TOLOSALDEA ▶

## Eskualdeko baserritar ugari izan da Ordiziako azoka berezian; batzuk sariak irabazi dituzte

Ibarrako Montes izan da irabazle barazkietan; Baliarraingo Mujika eta Jauregi eta Ibarrako Aristi, sarituen artean ▶ 6-7



Montes familiak lehen saria irabazi zuen barazkiekin. JAIONE ASTIBIA

## HEZKUNTZA ▶

## IRATXE ETXEBESTE

**N**egarrez, edo, gutxienez, saminduta joaten omen dira ikasturte berriko lehen egunean haurrak eta gaztetxoak eskolara. Hori entzun izan dugu urtetik urtera lehen eskola eguna heldu denean, eta askok eta askok horixe bera uste dute oraindik. Atzokoa zen eskualdeko ikastetxe gehienetan egun hori; udako oporraldi luzearen ostean, berriz ere ikasturteari ekitokia, eta esana egiazkoa den edo ez jakiteko Tolosaldeko ikastetxe ugaritan izan zen goizetik eguerdira Hrtza egunkaria. Ez dugu esango, bereziki txikienen artean, bat edo beste negar malkotan joan ez zenik, baina, ikusi dugunaren arabera, gehienek gustura agurtzen dute irakaslea, pozik sartzen dira urte osoan egon beharko duten gela berrira eta kontent dira eskolako lagunak berriz ere ikusteaz.

Helduagoak dira, behar bada, eskolara itzultzeko kontu hori gaizkien eramaten dutenak. DBHko eta Batxilergoko ikasleek badakite aste gutxiren buruan ikasten hasi beharko dutela, eta honezkerok azterketen beldur dira batzuk. Eskolako ateak artean zabaltzeke zeudela, urduri antzean galdeztzen zioten elkarriz atzo zein irakasle izango duten aurten tutore, nork emango dien halako ikasgai edota gelakide berririk izango ote duten. Kontuak kontu, udan ikusterik izan ez dituzten gelakideak agurtzen nahiko lan izan zuten ikasleek, eta oporretan egindako bidaia eta parrandak izan zituzten gehienek ahotan.

Egun gutxi barru ohikora itzuliko badira ere, ikasleek egokitu egin behar izaten dute udako oporren ostean eskolara edo ikastolara. Baita irakasleek ere, eta, txikienen kasuan, gurasoak dira, ez bairrik gabe, egokitzapen gehien behar iza-



Tolosan. Laskorain ikastolako ikasleek jolasean eman zuten goiza atzo Sakramentinoetako jolaslekuan; gustura joan ziren gehienak. MADDI SOROA

## Aurpegi alaiak lehen eskola egunean

Eskualdeko ikastetxe gehienetan atzo izan zen lehen eskola eguna; urduri samar baina gustura ekin zioten ikasleek ikasturte berriari; udako oporrak amaitu dira

## iragarki laburrak ▶



Laskorain, 3 TOLOSA

**Tolosa.** Korreo kalean 70 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai, kanpoaldera begira. Balkoiarekin. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Agintari kalean etxebizitza berria. 3 logela, 2. pisua eta igogailuarekin, bizitzera sartzeko prest. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Santa Klaran 111 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai: 4 logela, egongela handia 25 m<sup>2</sup>koa eta igogailuarekin. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Bidebietan etxebizitza salgai, egongelarekin eta sukaldearekin. Bizitzera sartzeko prest. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Leidor zinema inguruan garaje marra alokairuan. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Araba etorbidean 97 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai, bizitzera sartzeko, balkoi handia eta garaje marrarekin. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosaldea.** Baserria salgai: 3 solairuko etxebizitza salgai, 30.000 m<sup>2</sup>-ko lursailarekin. Banatzeko aukera. Mandio. 669 87 19 09.

**Andoain.** 90 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, 3 logela, 2 bainugela, igogailuarekin. Pisu altua. Mandio. 669 87 19 09.

**Ibarra.** Julian Gaiarre kalean 3 logelako

etxebizitza salgai. Bizitzera sartzeko prest. Apartekoa. 31.500.000 pza. Mandio. 669 87 19 09.

**Ibarra.** Etxebizitza salgai, 2 logelakoa, kanpoaldera begira, sukaldia altzariz hornitua. Mandio. 669 87 19 09.

**Ibarra eta Altzo.** Etxebizitza ugari alokairuan. Mandio. 669 87 19 09.

**Anoeta.** Eraikuntza berriko etxebizitza, 97 m<sup>2</sup>-koa, 3 logela, bainugela, trastelekuarekin. Mandio. 669 87 19 09.

**Berrobi.** Etxebizitza salgai, hiru logelakoa. Mandio. 669 87 19 09.

**Alegia.** Etxebizitza berriak 2 eta 3 logelakoa. Mandio. 669 87 19 09.

**Idiazabal.** Eraikuntza berriko etxe abikia. Mandio. 669 87 19 09.

**Legorreta.** Etxebizitza salgai, 3 logela, egongela, sukaldia eta trastelekuarekin. Mandio. 669 87 19 09.

**Goierri.** Bifamilientzako etxe abikia, eraikuntza berrikoa. Mandio. 669 87 19 09.

**Elduain.** Etxe abiki berria, 4 gelakoa eta 2 solairukoa salgai. Informa zaitetz. Mandio. 669 87 19 09.

**Aia.** Apartamentu bat eta pisu berria salgai, azken solairuko etxebizitza. Ingurune naturalean hondartzatik 15 minutura, bi gelako apartamentuak; garajea aukeran. 29.000.000 pza. Mandio. 669 87 19 09.

**Corella.** Etxe abiki rustiko berriak, konstruktorek zuzenean kudeaturikoak.

Porbearekin, 2 eta 3 gelakoak, bainua eta sukaldiez hornitua. 800, 1.000 eta 1.200 m<sup>2</sup>-ko terrenoarekin. Pizina eta guzti. Eta gainera, batzuk biuneneta dotorea. 13.000.000 pezeta. Mandio 669 87 19 09.

**LOKALAK**

**Tolosa.** Nafarroa etorbidean 71 m<sup>2</sup>-ko lokala salgai. 669 87 19 09

**Goierri.** Erregetgia ingurune naturalean. Terrazarekin eta bezero finkekin salgai. Prezio interesgarrian. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** 428 m<sup>2</sup>-ko pabiloi berria salgai, ate bikoitzarekin eta sARBIDE egokikoa, sailhesbidea ondoan. Mandio. 669 87 19 09.



**Aitzon.** Haur eta gaztekoek goizetik eguerdira izan zituzten eskolak atzo; oporretako gora beherak elkarri kontatu ostean, ikasurteko ordutegia zehaztu zuten 3, 4 eta 5. mailako ikasleek irakaslearekin. **MADDI SOROA**

ten dutenak. Egokitzapen hori ahalik eta xamurren izan dadin, gutxinaka gehitzen dizkiete ikasleei ikastetxean pasatu beharreko orduak. Lehen astean ordu gutxi batzuk baino ez dituzte ematen bertan, eta bigarren edo hirugarrenetik aurrera goizez eta arratsaldez izaten dituzte eskolak.

**Udako oporrak, amaituta**

Hitzun ziren atzo haur eta gazte asko ikaskide eta irakasleekin; kazetariari galderei erantzutea gehiago kostatzen zitzaizen, ordea: «Oporretan ez dugu aspertzeko betarik izan, baina, hala ere, luze egiten dira azkenetarako, eta eskolara etortzeko gogoia bagenuen». Beste batzuei konturatzera pasatu omen zaizkie bi hilabeteak, eta hau eta beste egiteke utzi behar izan dutela esan dute.

Gehienetan atzo, baina lehen eskola eguna gaur izango dute Tolosaldeko eta Leitzaldeko herri batzutan: Leitzan, Areson eta Ikaztegiatan, esaterako, gaur ekingo diote ikasurteari. Zizurkilgo Pedro Mari Otaño ikastetxeko ikasleek, berriz, ez dute eskolarik izango astelehena arte, herriko jaiak direlako; gehien antzera, atzo egin zuten, hala ere, ikasurtearen aurkezpena.

Atzo edo gaur hasi, udako oporraldia amaitu da eskualdeko ikasle guztientzat. Ikastetxetara itzuli dira. Eta, aizue, gehienak barrez ikusi ditugu.



**Alegian.** Institutuko ikasleek aurkezpena izan zuten atzokoan; kontu txikiak esaten ere aritu ziren batzuk eskolako jolastokian. **MADDI SOROA**



**Zizurkilen.** Pedro Mari Otaño ikastetxeko ikasleek gustura ekin zioten atzo ikasurteari. Oporretan hobeto egoten omen da, hala ere. **M. SOROA**

# Haurren mundu ikusgarria

Eskualdeko Haur Eskoletan lehenago hasi ziren: bigarren astean sartu dira honezkero

**I. ETXEBESTE**

Jaioberriak direnetik hiru urte betetzen dituzten arte Haur Eskolara joaten dira umeak gurasoek hala erabakitzen dutenean. Aitaren edota amaren lan orduen arabera antolatzen dute haurrak Haur Eskolan egon behar duen denbora, eta gehieneko epea badago: zortzi ordutik gora ezin du haurrak bertan egon.

Adinen arabera banatzen dituzte umeak geletan, baina urte berean jaiotakoaren artean handia izaten da aldea. Seaskan, lotan, barrez, negarrez,

hitz egin nahian, ibilian, lau hanketan... Bere martxa jarraitzen du bakoitzak, eta hezitzaileek diote bati pardelak aldatzen dizkiotenean besteak oinez ikasi nahi duela; eta lotan dagoena ez dela negar egiten ari denaz ohartu ere egiten.

Ibarrako Haur Eskolan irailaren 1ean hasi zuten ikasurtea, eta honezkero bigarren astean sartu dira. Oraindik, baina, ez dira ohiko ordutegiarekin hasi: lehenengo asteak haurraren egokitzapenerako izaten dira, eta «gurasoak haiekin egoten dira hemen». Munduarekin duten lehen harremana da.



**Ibarran.** Haur Eskolakoak egokitzapen garaian daude. **MADDI SOROA**

**HITZA, eskualdeko plaza** **661 678 818**  
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta Toki aproposa iragartzeko

JAIKAK ▶

**INKESTA ▶ ZER DA GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUNA FETETAN?**

**PILAR ARRILLAGA**  
ALKIZA

«Jubilatuena bazkaria gustatzen zaiz»

«Jubilatuena bazkaria da gehien gustatzen zaizuna festetan. Hala ere ez nuke ezer aldatuko jaietan, oso ongi dauke dauken moduan, herri kirolak, bertsolariak...»

**MANEX ARRASOIA**  
ZIZURKIL

«Buruhandiak ditut gustukoak festetan»

«Buruhandiak ditut gustukoak festetan, baita barrakak ere. Lagunekin ateratzen naiz egunero eta berarekin pasatzen dut ondoren festetan.»

**ANDER ALTUNA**  
ZIZURKIL

«Asto karreraren ateratzen gara urtero»

«Asto karrera gustatzen zaiz gehien. Urtero ateratzen gara eta oso ongi pasatzen dut lagunekin. Gautan festara ateratzea ere gustatzen zaiz.»

**MARITXU ELOLA**  
ALKIZA

«Bertsolariak ikustea gustatzen zaiz»

«Bertsolariak ikustea gustatzen zaiz gehien festetan. Baina orokorrean herriko festak gustatzen zaizkit: herri kirolak, trikimariak eta baita bazkaria ere.»

**JOEL WEPSIEC**  
ELDUAIN

«Gautan ateratzea gustatzen zaiz»

«Gautan ateratzea gustatzen zaiz gehien festetan. Baina orokorrean herriko festak gustatzen zaizkit: herri kirolak, trikimariak eta baita bazkaria ere.»

# Tolosaldea jai giroan

Alkizan, Zizurkilen eta Bediaion atzo hasi ziren herriko jaiak igandera arte; Elduainean, berriz, hurrengo urtera arte agurtu zituzten herriko festak



Elduainean herri kirolak ikusteko parada izan zuten bertaratu zirenek; argazkian, trontzalariak herriko plazan. I. TERRADILLOS

**I. TERRADILLOS/G. AZKUE**

Egun handia izan zen atzoko eskualdeko hainbat herritan. Amabirjainaren eguna ospatzen baitzuten. Horrela izan zen Elduainean, Bediaion, Alkizan eta Zizurkilen.

Astelehenean eta asteartean atseñeden egin eta gero, atzo jaiaren azken eguna zuten Elduainean; hamaiketako meza nagusiaren ondoren herriko Urdelak bitokian elkartu ziren hamaiketako egiteko. Arratsaldean, berriz, herri kirolak eta trikiti doinuak bandan izan zen. Iparraldekoak aritu ziren herri kirolatan, eta gaur egun festak alai amaitzeko, Joseba Iparragirrek eta Ander San Josek trikitiaren giroa zuten herriko plaza.

Elduainean jaiak datoren urterarte agurtu esaten baitzen, atzo eman zieten ongiroterria Bediaion herriko jaiak ohiko suziri jaurtitzeko. Meza nagusiaren ondoren, berriz, elkartean bildu ziren herrikoak hamaiketako egiteko. Giro polita nabari zen bertan, eta jaietarako zuten oratidiki, bazkaria ere elkartean bertan egin baitzuten. Arratsaldean, pilota partidak izan ziren nagusi, eta ondoren, giroa Laja eta Landakandak jarri zuten pandero eta trikiti doinuekin. Igandera bertarke festa giroa itzango da Bediaion.



50 bat jubilatu bidu ziren Alkizako Otsamendi jatean bazkaltzeko. G. AZKUE



Haurrek bota zuten festetako lehen bupinazoa Zizurkilen. G. AZKUE

daion, adin gurutzetarako hainbat ekitaldi antolatu direlarik. Zizurkilen, 16.30erako plaza bete haur eta gazte zegoen atzo, festak hasieraz zuden eta nabari zen hori giroan. Egitarauko lehen ekintza haurrek burutu zuten, oportunitate euskarazko ibiliko gaztekoek eguneko lehen txupinazoa bota zuten, bertsoez lagunduta.

Baina ez zen haurrentzat prestatutako eguneko ikuskitum bakarrik izan; suziri hotza

entzun bezain laster buruhandiak gerturatu baitziren plaza. Eta 17.00ak ingururako prest zuden Trikiti, Pirritz eta Porroto palazoak plaza oso taula gainean.

Txupinazo nagusia luzean izan zen. Inurriak blusako gartean eskutik festei ongiroterria eman zioten zizurkildarrek.

Eta herri aldiaren ondoren, Jum-jum porroto talde senegaldarraren doinuak entzuteko aukera izan zuten festan lehen egunean.

Alkizan ere atzo hasi ziren herriko jaiak. Meza nagusiaren ondoren, herriko jaietako bazkaria izan zuten Otsamendi jatean. 50 albiz inguru bildu ziren bertan. Udaleko ordezkariekin batera, Bazkaidu ondoren haurren txupinazoa izan zen; antolatzaileek, txikien-txiki jokoak prestatu zituzten. Toka txupinazoa izan zen egitarauaren hurrengo ekintza, eta Anorregik eta Larrañagaren doinuek eman zioten amaiera egunari.

**EGITARAUUA ▶ GAUR**

**ALKIZA**

**22:00.** Kultur Etxean zine emanaldia, Saharako errefusatuak kanpamentudun egiten duten bizimoduan, oinarritutako filma.

**BEDIAIO**

**20:30.** Ardi-jata.

**Ondoren.** Xabier trikimariaren erromeria.

**ZIZURKIL**

**11:30.** Meza nagusia.

**12:00.** Sardinak eta Sagardo dastaketa Urkamendin.

**ELDUAIN**

**12:30.** Buruhandiak, **12:30.** Etxeko jaietako elkartek

antolatutako jolasak adin gurutzetarako: bota eta igela. **14:00.** Jubilatuena bazkaria. **17:30.** Asto karrera. **19:00.** Herri kirolak: Amargiolen harrijasotzailea eta, ondoren, herriko erromeria desafioa. **23:00.** Los Veracruz taldearen Mexikoko musika.

**Ondoren.** Disko Top festa.

**GARAJE EKIN**  
Ondo pasa jaiak!  
Elbarrena auzoa, 15. polgonoa  
Tel: 943 69 26 84  
ZIZURKIL

**ATAILLONDO**  
Ondo pasa Zizurkilgo jaiak!  
Tel. 943 69 44 90  
Elbarrena auzoa (Pasus)  
20150 ZIZURKIL

**AURRERA taberna**  
Tel. 943 69 37 22 • ZIZURKIL

**AMUÑO, S.L.** Tailerra  
Ondo pasall!  
Elbarrena auzoa - 15. induspostu 2/2  
Tel. 943 69 26 84 • Fax: 943 69 26 84

**MANTENTE FÍSICO EIA ZUPETZE ZENTROA**  
• Masajio  
• Dietako eta elikaduran aditua  
• Pilatek metodoan oinarritutako gimnasia  
• Kirok masajio  
Belduargi kalea, 2. beheko solairua  
ZIZURKIL  
Tel. 943 69 95 46 • Gorputzako geroaren aholkariak

**NEKANE** lantzeria  
Ondo pasa jaietan!  
Tel. 943 69 16 64  
Ernio, Lokoio, 12 • 21210 RUI

**Jai Zoriontsuak izan!**  
Ernio bidea, 20 • P. 1000 30/2000ko  
Zuz. Lokoio 11  
ZIZURKIL  
Tel. 943 69 44 44 • Fax: 943 69 41 00

**ELBARRENA**  
TAILERRAK  
Parillak egiten ditugu  
Ondo pasa jaietan!  
Elbarrena auzoa, 2/2  
20150 ZIZURKIL  
Tel./Fax: 943 69 17 28  
P.K. 253-20150 VILARMAÑA

**ZIZURKILGO UDALA**

ORDIZIAKO AZOKA ▶

# Fruitu eta barazki lehiaketan aurreko postuetan, eskualdekoak

Asteazkeneroko azokan parte hartzen duten baserriarren artean egin ohi den lehiaketan Ibarako Montes baserriak lortu zuen lehenengo postua; Baliarrainen geratu ziren bigarren eta laugarren saria

J.ASTIBIA/O.ESKITXABEL

Ordizian, Euskal Jaiak izenburuko egun berezia burutu zen atzokoan, urteroko ohiturari jarraiki, eta herri guztia festagune bilakatu zen, eguneko protagonistak zonaldeko nekazari eta abeltzainak izan zirelarik, inolako zalantzarik gabe.

Goizean goizetik jende mardoska bazebilen ere, eguerdi partean iritsi zen jende uholdea, herrian zehar prestatuta zeuden arlo desberdinetarako eremuetan barna hedatu zen eta, eguraldi ona euriari jabetu zitzaion eran, kaleen jabe egin.

Esan bezala, herrian barrena hainbat gune berezitu zeuden antolatuta, bakoitza arlo baterako egokituta, eta guztiak ere baserrietako produkturik hobereenez hornituta ageri ziren.

Urtean zehar ohiko feria burutzen den Plaza Nagusian, betiko saltzaileak aritu ziren lanean, baina guztiek ere egun honetarako aparteko ahalegina egin eta, postuak egun berezi horretarako atonduta aurkeztu zituzten.

Garagartza plazan berriz,

## SARITUAK ▶

Honakoa da Ordiziako azokan saria eskuratu zuten eskualdekoen zerrenda:

### FRUITU ETA BARAZKI LEHIAKETA

**Ibarra.** Montes baserriak lehenengo saria lortu zuen.

**Baliarrain.** Maria Jesus Mujikak (Gorostartzu baserria) bigarren saria eskuratu zuen.

**Baliarrain.** Laugarren sailkatu zen Edurne Jauregi (Iribiazpi baserria).

### EUSKO OILOA

**Ibarra.** Juan Aristik bigarren saria lortu zuen.



**Lehenak.** Iaz bezala Ibarako Montes baserriak irabazi zuen Plaza Nagusiko fruitu eta barazki lehiaketa. O.ESKITXABEL

aziendak zeuden erakusgai: behiak, txahalak, idiskoak... plaza betez, iladan, lasai egoteko moduan jarrita, eta guztiak ere abeltzainek zituzten alerik ederren eta ikusgarrienak erakusteko intentzioz eramanak, garbi eta txukun. Aziendazaleentzat eta besteentzat ere, ikusgarritarako jarrita zeuden. Bi plaza hauen arteko kaleetan, bestelako postuak ikus zitezkeen, askotariko produktu en salmentarako jarrita: kontserbak, arropak, taloak...

Artisauen erakusketa ere izan zen. Baina eskuz egindako produktutarako gaztak izan daitezke eredu, eta atzokoan, besteak beste, horixe izan zen protagonistetako bat, herriko pilota lekuan burutu zen txapelketa zela bide.

Kontuak kontu, hainbat eta hainbat eremuz jositako festa oso eta bakarria izan zen

### Kalitatezko gaiak

Eskualdeko baserriko produktuek harrera ezin hobea izan zuten atzoko azokan; Plaza Nagusiko fruitu eta barazki lehiaketan hiru sari eskuratu zituzten. Asteazkeneroko azokara

joan ohi diren baserriarrak dira guztiak.

Lehenengo saria, aurreko urteetako ohitura jarraituz, Montes baserriak (Ibarra) lortu zuen: «Produktuen eskaintza zabala eta kalitate ona» saria lortzeko aldeko puntu gisa aipatu ditu Arantxa Iparragirek, Montes etxeko nagusieta-ko batek. Postua txukun jartzea, koloreak nahastea eta gauza bereziak jartzea ere, garrantzitsua dela azaldu zuen. Sariari dagokionez, «salmenta baxuen ordainetan saria gustura jasotzen da», azaldu zuen Iparragirrek.

Bigarren eta laugarren saria Baliarrainen geratu ziren; bigarren saria Maria Jesus Mujikak lortu zuen (Gorostartzu baserria); sarien artean aurpegi ezaguna da Mujikarena. Eta, laguntzen aritzen den koinatak «esku ona duelako» dela azaltzen badu ere garrantzia kenduz, «norbaitek irabazi behar du», azaltzen du baliarraindarrak.

Irabaziazpiko Edurne Jauregi laugarren sailkatu zen; asteazkenero eta ostiralero Ordiziako azokan izaten da Jauregi bere amari lekukoa hartu on-



**Bigarren.** Saridunen artean ohikoa izaten da Maria Jesus Mujika (Gorostartzu baserria); aurten, bigarren sailkatu da. O.ESKITXABEL



**Laugarren.** Asteazkenero eta ostiralero Ordiziako azokara joaten den Edurne Jauregik laugarren postua lortu zuen. O.ESKITXABEL

doren. Sariaren poztasunaz gain, gustura agertu zen egindako salmentekin.

Tolosaldera iritsi zen beste saririk; Juan Aristi ibartarrak bigarren saria lortu zuen euskal oiloaren XXII. erakuslehiaketan.

Gazta lehiaketa eta ondorengo enkantea izaten da Ordiziako azokako momentu garrantzitsuenetarikoa. Lehiaketara hirurogei gazta aurkeztu ziren atzokoan eta horietako bi eskualdean eginak ziren: Orexa-

ko kooperatibakoa, bata, eta, Tolosako Martin txiki baserrikoa, bestea. Ez zuten saririk eskuratu baina Jose Manuel Iturrizte, Orexako kooperatibako langileak zehaztu zuen bezala, «aurkezteagatik ez da ezer galtzen». Txapelduna, Angel Errasti Oñederra debarra izan zen.

Eskualdeko artisauak ere beraien lanak erakusteko auzura izan zuten. Karlo Irazu (Larrau) eta Iñaki Gorostidi (Aduña) izan ziren bertan.

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

DANIEL OIARTZABAL ▶ VILLABONA

## «Ez da asko saltzen; jendea ikusteko asmoz etortzen da»

Aurten saririk lortu ez badu ere, behin baino gehiagotan saria eskuan bueltatu da Villabonako Abulebi baserriko Daniel Oiartzabal.

**Askotan hartu al duzu parte Ordiziako azokako lehiaketan? Eta saririk al eskuratu duzu inoiz?**

Fruitu eta barazki erakusketara orain dela urte asko etortzen gara; iaz bigarren saria eskuratu genuen. Laugarren ere sailkatu izan gara.

**Jendea ikusmiran etortzen**

**dela esaten dute askok. Ados al zaude?**

Gaurko egunez ez da asko saltzen; jendea ikusteko asmoz etortzen da.

**Zein produktu saltzen da gehien?**

Bakoitzak bere espezialitatea izaten du; gurea, Gernikako piperra dela esan daiteke. Hori bai, ekartzen ditugun produktuak saltzeko asmoz etortzen gara ez erakusteko asmoz bakarrik.

**Dena prestatzeko goizean**



J. ASTIBIA

**goiz jaiki beharko duzue, ezta?**

Bezperan azokara ekarri beharrekoa antolatzen dugu. Ez da lan zaila izaten izan ere guk 25.000 metro karratuko ustia-

pena daukagu eta lan hori egin behar izaten dugu. 06:00etan jaiki eta 6:40ak aldera Ordiziara iritsi gara. Eta iristen azkenegoa izaten naiz, hortik pen-tsa. ◀



**Eskulanak.** Larraulgo Karlos Irazuk eskulanak erakutsi zituen. J. ASTIBIA



**Pirenaika txapelketa.** Amezketako eta Abaltzisketako baserriko behiak izan ziren txapelketan. Argazkian, Emilio Gorostidi abaltzisketarra ikus daiteke 65 zenbakiaekin. O. ESKITXABEL

ORDIZIA ▶ GIZARTEA

## Nekazarien aldarriak ere izan ziren azokan

Lehen sektorerako laguntzak eskatzeko kontzentrazioa egin zuen EHNE sindikatuak



Ordiziako pilotalekuan burutu zuen kontzentrazioa EHNEK. HITZA

J. ASTIBIA

Atzo, Ordizian, gazta lehiaketa egiten ari ziren bitartean, EHNE sindikatuak deitutako kontzentrazioa burutu zuten. «Agintariok entzun, nekazarien beharrei erantzun» lemapean.

Gazten dastaketak bukatu eta sariketa aurretxoan, estradura igo ziren hainbat eta hainbat nekazari eta abeltzain. Han adierazi zuten, hain justu politikarien presentzia baliatzea erabaki zuten «Ordiziako ferian, hain zuzen ere bertako nekazariak izanik eguneko protagonista, urte gutzian ere politikoko kontutan hartu gaitzaten eskatze-

ko». Honekin lotuta, nekazariak dituzten hainbat arazoren aipamena egin zuten. Besteak beste «Aralarreko Mankomunitateak artzainekiko duen jarrrera», salatu zuten, «sektorearekin kontaktu gabe beraien erabakiak hartu nahi dituztela» eta «ez direla egokiak izan» ikusten dutelako. Bestalde, iazko eta aurtengo lehortek eragindako kalteetarako laguntzak bezalako gaiak ere aipatu zituzten.

Edozein moduz, politikariek sektorearekin izan beharko luketen interlokuzioa aldarrikatu zuten nagusiki, beraiek hitz egiteko prest agertuz eta «orainaren eta geroaren artean aldaketarako marra» jarriz.

### TELEFONOAK ▶

#### LARRIALDIAK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 69 24 23

**Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61

**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34

**Ibarralde.** Osasun etx.: 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29

**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Lizartza.** Medikua: 68 20 77

**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald.: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzio klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

**Villabona-Aiztondo.**

Anbulatorioa: 00 69 70

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

#### GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

#### KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttapa ald.: 948 631888

#### EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

#### GUARDIAKO FARMAZIA

**Gaur.** Quetglas, M.A. Euskal

Herria, 46 (Ibarra). 67 32 74

Erbiti, O. Lizarraga, 7 (Leitza).

112

#### TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.

tolosaldean\_public@tolosaldeko

hitza.info

**Tolosa.** 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22.

villabona\_aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

**Anoetaidea.** 687 41 00 22

anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info

**Ibarralde.** 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko-hitza.info

**Alegialdea.** 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

**Leitzaidea.** 687 41 01 18.

leitzaidea@tolosaldeko-hitza.info

### iragarki laburrak ▶

#### SALGAI

**Etxebizitza.** Anoetan, 3 logelako

etxebizitza salgai. 207.000 euro

Telf: 630 030 149.


## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Belautza.** Botika Naturala eta Aromaterapiari buruzko ikastarorako izen-ematea 10a arte. 943 670020.  
**Berastegi.** Irailean zehar egur taila, laboreak eta yoga ikastaroak izango dira Gaztainondo elkartearen.  
**Berastegi.** Gaztainondo jubilatuen elkartearen hitzaldia 17:30ean: *Bizimodu osasuntsurako giltzarriak.*  
**Tolosa.** Judo, aerobik eta pilatesen izena emateko epea zabalik da Berazubiko kiroldegiko judo gelan 18:00etatik 20:00etara.  
**Tolosa.** Peñascal Fundazioak Lanbide Hastapenetan matrikula ireki du. 943 676161  
**Tolosa.** Alpino Uzturrek Belate-Auritz mendi irteera antolatu du iganderako, irailak 12, goizeko 6:30ean Gorosabeletik aterata. Izen-ematea: 943 65 27 89.  
**Tolosa.** Harizpek urriaren 16tik 30erako oporrak antolatu ditu Benidormen 370 eurotan dena barne. Izen-ematea hilaren amaiera arte elkartearen bertan.

### ERAKUSKETAK

**Tolosa.** Miren Gonzalez Goikoetxearen *Puzzleak* pinturak. Aranburu Jauregian urriaren 9 arte.  
**Tolosa.** *Zaharkinak*, Tolosako ondaren etnografikoaren bilduma. Ferialekuan hilaren 26 arte.  
**Tolosa.** Txaro Medrano pintore amaroztarrak bere paisajeak zintzilikatu ditu Sorron koadro denda.  
**Tolosa.** Olivia Sanchez Lorenzok bere koadroak jarri ditu ikusgai Lanbroa tabernan.  
**Tolosa.** Marisa Vivancoren paisajeak, bodegoiak, loreak... Saikin tabernan.



Abstraktoak dira beasaindarraren pinturak. J.SAIZAR



Kolore ilun samarrak erabili ditu artistak bere lanetan. J.SAIZAR

# Pinturak Ostatuko paretetan

**HERNIALDE ▶** Leire Markinez beasaindarrak bere lanak jarri ditu ikusgai; hilaren amaiera arte egongo dira zintzilikatuta



Markinezen koadroekin batera hainbat tresna ikus daitezke Ostatuko erakusketan. J.SAIZAR

### ERREDAKZIOA

**A**rte ederrak ikasi eta pintura monitore gisa aritu da Leire Markinez beasaindarrak hainbat herritan. Horrekin batera zenbait erakusketa jarri Beasainen, Lazkaon eta Leioan bakarka edo beste artista batzuekin eta sariak ere irabazi izan ditu bere jaioterrian. Gaztea izan arren, esperientzia handiko artista baten aurrean gaudela esan daiteke.

Oraingo honetan Hernialdeko Ostatuan zintzilikatu ditu bere pintura lanak. Irudi abstrakto gisa sailkatu daitezke. Eta kolore ilunak nabarmen-tzen dira besteen artean. Hilaren amaiera arte egongo dira ikusgai eta salgai.

Hilero erakusketa bat egiteko asmoa agertu dute Ostatuko arduradunek. «Orain arte jarri ditugun erakusketetan denetik izan da: batzuk ondo saldu dute eta beste batzuk gutxi. Hala ere jende guztiak begiratzten die koadroei hona etortzen direnean», adierazi du Ostatuko arduradunak.

## ZORION AGURRAK ▶



### URTE ASKOAN

Altx Arrospide Jauregi.  
Herenegun 13 urte. Zure lagun Miren Amaia eta Itsasok. Muxu handi bat.

# HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:

Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!